

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2013-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2013ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostena Bizkaiko Foru Aldundiaren eta GUFEn Foru Erakunde Autonomoaren kontuek ez ezik (Administrazio-Sektore Publikoa), Foru Enpresen Erakunde Publikoen, Foru Elkarte Merkataritzakoen eta Foru Fundazioen kontuek ere (Enpresa-Sektore Publikoa) osatzen dute.

Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute. Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Foru Sektore Publikoaren finantza egoera aztertzen du.

### Administrazio-Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2013ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzarioa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan Aldundiari eta erakunde autonomoari dagokienez jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Diru-laguntzak emateari dagokionez, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko zailtasuna justifikatu gabe guztira 2,5 milioi euroren 9 diru-laguntza eman ditu.

Bestetara, BFAREN eta kirol sozietate anonimo baten artean 2013ko apirilaren 24an lankidetzaren hitzarmena izenpetu zen, ACB Saskibaloiko Cluben Elkartearen liga profesionalean Bizkaiaren irudia osorik sustatzeko; horren indarrez, 2012ko uztailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean sozietateak gauzatutako kirol jarduera guztiak lagundu ziren diruz, 5,3 milioi euroren zenbatekoan eta honako alderdi hauek azpimarratu dira: ordaindutako kopurua justifikatu ahal izateko banakatze eta sustatutako jardueraren banakako balorazio eza; zenbait betekizun formal bete izana ez egiaztatzea; berebat, indarreko araudiaren arabera, laguntza hauen zuzeneko emakida ez dago justifikatua; aurreko ekitaldietan, gainera, Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu dituzte eta urteko aurrekontuan jaso.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan Gizarte Urgazpenerarako Foru Erakundean salbuespen esanguratsuen obra, zerbitzu eta hornigaiak zuzenean kontratatu izana da, guztira 0,88 milioi euroren zenbatekoan, dagozkion kontratazioko espedienteak izapidetu gabe.

BFaren eta GUFeren kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki erakusten dutela 2013ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, ekitaldi itxierako ondarea eta finantza egoeraren isla zuzena.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu atal irizpenen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Gomendio horiek aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalen kudeaketari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari, langileriari eta beste batzuei dagozkie.

BFaren egoera finantzarioari dagokionez, Epaitegiak ondorioztatu du 2013ko ekitaldiko datuek erakusten dutela ekitaldi horretako diru-bilketarekin eta gastu arruntari eusteko ildoari jarraiki, inbertsio errealei aurre egingo dien baliabideak sortzeko gaitasuna dagoela, nahiz kopuru mugatuetan, aurreko ekitaldietako bideari lotuta. Hori guztia Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa ezartzearen ondorioz zorpetzea baliatzeak duen mugaketarekin.

### Enpresa Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, unean uneko ez-betetzeak azaleratu dira hainbat sozietate eta fundazioetako obra, hornidura eta zerbitzuen kontratazioari ezargarriak zaizkion agindu eta printzipioetan.

Bestetik, urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki erakusten dutela 2013ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, ondarearen isla zuzena eta ekitaldi itxierako finantza egoera; salbuespen bakarra dago Azpiegiturak, SAren kontuetan, izan ere, izakinak eta ibilgetua eragiten dituen zalantza egoera dago, ekitaldi itxieran, hurrenez hurren, 114 eta 15 milioi euroren saldoa dutenak.

Berebat, kudeaketa hobetzeko irizpen eta gomendioen atal bat jaso da.

Finantza gaietan, HKEEK jakinarazi du Aldundiak 114,2 milioi euro eman dituela 2013ko ekitaldian Enpresa-Sektore Publikoarentzat: 100,3 milioi euro kapitala handiagotuta, eta 13,9 milioi euro sozietate horien galerak berdintzeko. Berebat, sozietate hauei 8,5 milioi euroren diru-laguntzak eman dizkie inbertsioak egin ahal izateko. Ondoren, 2013ko ekitaldian zorpetzea % 0,6 murriztu dela aipatzen du eta hortik kopururik handiena Interbiak, SAri dagokiola. Epe laburreko finantzaketari dagokionez azpimarratu du finantza egoerak epe laburrean aktiboak pasiboari aurre egiteko ezintasuna erakusten duela, txostenean zehaztu diren bi sozietatetan izan ezik. Amaitzeko, ekitaldiaren emaitzari erreparatuta, adierazi du Enpresa-Sektore Publikoaren 2013ko ekitaldiaren galerak 87,4 milioi eurorenak izan direla eta Sektore horren ustiaketa sarreretatik % 62,6 lotutako enpresei zerbitzuak emateari dagozkiola, nagusiki BFari.